

Wisconsin-eko (AEB) gobernadorearen bisita

2015/04/24

Bilera honen helburuetako bat, udazken honetan Marquette University eta Mondragon Unibertsitateko ikasleen arteko trukea bideratzea da. Gure ikasleek lehenengo seihilekoan euren ikasketekin jarraituko dute eta ondoren, Gradu amaierako proiektua egingo dute Milwaukee-ko konderriko enpresa batean.

Dagoeneko aukeratu dira, datorren ikasturtean, Marquette-ko unibertsitatean egonaldi bat egingo duten Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak. Era berean, 2016-2017 ikasturtean ikasle estatubatuarrak izango ditugu gure artean.

Scott Walker Jaunak, Wisconsin Estatuko Gobernadoreak AEBetako delegazio bat lideratu du. Delegazio hori horrela osatu zen: Reed E. Hall Jauna, Secretary & CEO, Wisconsin Economic Development Corporation, Katy Sinnott Anderea, Vice President – International Business Development, Wisconsin Economic Development Corporation eta Jim Paetsch Jauna, Vice President, M7/Choose Milwaukee.

Jim Paetsche izan da Marquette University eta Mondragon Unibertsitatearen arteko harremana sustatu duen aktore garrantzitsuenetakoa. Gainera, harreman hori M7 erakundeak eta Choose Milwaukee-k babesten dute.

